

## GOBERNU BATZARRA

2015. 03.13

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko martxoaren hamairuan, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Lore Agirre Zipitria</b>	
<b>Hasier de los Rios Soraluze</b>	
<b>Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.- Kultur taldeentzako diru laguntzak banatzeko oinarriak.
	3.- lurreamendi egoitza. Urtarrileko faktura.
<b>Idazkaria:</b>	4.- Tolosako hezkidetzazko emozionala lantzeko egitasmo integrala proiektuaren jarraipena egiteko kontratazio espedientea onartzea.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	5.- Ibilgailuen zerga. A.M.L.L.ren salbuespen eskaera.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	6.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. J.M.I.I.ren eskaera.
	7.- Ibilgailuen zerga. M.J.U.L.ren eskaera.
	8.- Etxebizitza hutsak alokatzeko 2014-2015 urteko programa.
	9.- 2015eko kiroletako dirulaguntzen oinarriak.
	10.- 2/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko martxoaren 6an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Kultur taldeentzako diru laguntzak banatzeko oinarriak.**

Gobernu batzar honek, Kultur batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

**LEHENA**.- Onartzea 2015ean egingo dituzten Kulturako ekintzak eta jarduerak finantzatzeko diru laguntzen arautegia. Aurrekontuaren kreditua: 30.000,00 euro, ondorengo kontutik 0800 481.01.4511.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kultura eta Kontuhartzailtza departamentuei.

### **3.- lurreamendi egoitza. Otsaileko faktura.**

lurreamendi egoitzak urtarrileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- lurreamendi egoitzari ordaintzea otsaileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 20.283,31 €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 892,53 €

Elbarrien defizita: 19.390,78 €

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **4.- Tolosako hezkidetza emozionala lantzeko egitasmo integrala.**

Berdintasun teknikariak txostena egin du non agertzen duen Hezkidetza Emozionala Lantzeko Egitasmo Integralaren justifikazioa, aurrekoaren jarraipena egiteko. Aipameneko egitasmoaren lizitazioa egiteko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, klausula administratibo partikularren agiria prestatu da.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**- Onartzea Tolosako Hezkidetza Emozionala Lantzeko Egitasmo Integrala egiteko proiektua, aurrekoaren jarraipena egin ahal izateko.

**BIGARRENA**- Onartzea Hezkidetza Emozionala Lantzeko Egitasmo Integrala proiektuaaren lizitazioa publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko espedientea.

**HIRUGARRENA**- Onartutako proiektua gauzatzeko dagokion gastua onartzea.

**LAUGARRENA**- Onartzea baldintza administratibo partikularren agiria, proiektu hori prozedura negoziatua publiziterik gabe kontratatzeko. Ezaugarri hauek izanik:

**Epea:** Proiektu honen kontratuaren iraupena 2015eko apirilaren 1etik 2017ko martxoaren 31 bitartekoa izango da.

**Kontratuaren gehieneko prezioa:** 33.400 euro urteko (BEZa barne), hau da, orotara 66.800 euro.

Proiektu honen ordainketa bi urtean zehar 10 hilabetetako fakturen bidez egingo da (uztaila eta abuztua izan ezik).

**BOSGARRENA**- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion gonbidapenak eginez.

**5.- Ibilgailuen zerga. A.M.L.L.ren salbuespen eskaera.**

**A.M.L.L.**k Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena eskatu du minusbaliotasunagatik.

2015eko urtarrilaren 1ean, 7372-HMD matrikula duen ibilgailua L.P.P.aren izenean zegoen, eta baldintza guztiak betetzen zituenez, zergaren salbuespena zuen.

L.P.P. otsailaren 26an hil zen. Ondorioz, 2016 urtean, 7372-HMD ibilgailuari salbuespena kenduko zaio.

Horren aurrean, bere andreak, **A.M.L.L.**k zergaren salbuespena eskatu du minusbaliotasunaren baldintza guztiak betetzen dituelako. Baina, **A.M.L.L.** ez da kotxearen titularra.

Hori dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Adierazitakoa aintzat hartuta, 2016 urtean, 7372-HMD ibilgailuari Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan salbuespena ez ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari eta interesatuari.

**5.- Impuesto de vehículos. Solicitud de exención de A.M.L.L.**

**A.M.L.L.** ha solicitado la exención en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica por motivo de minusvalía.

Con fecha 1 de enero de 2015, el vehículo con matrícula 7372-HMD estaba a nombre de L.P.P. y, al reunir todos los requisitos, gozaba de la exención por minusvalía en el impuesto.

Sin embargo, L.P.P. ha fallecido el día 26 de febrero. Por lo que el año 2016, se anulará la exención para el vehículo 7372-HMD.

Ante ello, su mujer, **A.M.L.L.** ha solicitado la exención en el impuesto ya que reúne todas las condiciones de minusvalía. Sin embargo, **A.M.L.L.** no es titular del vehículo.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO.**- No conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 7372-HDM en el año 2016 a **A.M.L.L.**, en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo.

**SEGUNDO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

**6.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. J.M.I.I.aren eskaera.**

2015ko martxoaren 4an, J.M.I.I.k eskatu du familia ugariari aplikatzen zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren hobaria.

Ordenantza fiskalaren 8. artikuluko 2. atalak esaten du hoberi honetaz gozatzeko subjeto pasiboak eskatu egin behar duela, eta eskaera otsailaren 28a baino lehen egin behar dela, beraz, eskaera epe kanpo egin baita.

Nahiz eta eskaera epe kanpo egin, kontsideratzen da zerga honi dagokionez beharrezkoa dela eskaera aurkezteko epea malgutzea.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Adierazitakoa aintzat hartuta, J.M.I.I. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren osoko kuotaren %50eko hobaria ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza departamentuari eta interesatuari.

**6.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas. Solicitud de J.M.I.I.**

Con fecha 4 de marzo de 2015, J.M.I.I. ha solicitado la bonificación en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a las familias numerosas.

El apartado 2 del artículo 8 de la Ordenanza Fiscal señala que el disfrute de esta bonificación requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo y que la solicitud se realice antes del día 28 de febrero.

Aunque la solicitud se ha presentado fuera de plazo, se considera que a efectos de este impuesto se debe flexibilizar la fecha de finalización para la presentación de solicitudes.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ACUERDA**

**PRIMERO.**- Conceder la bonificación del 50% de la cuota íntegra del Impuesto sobre Bienes Inmuebles a J.M.I.I., en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo.

**SEGUNDO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

**7.- Ibilgailuen zerga. M.J.U.L.ren eskaera.**

2015ko martxoaren 10ean, **M.J.U.L.**k eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena 6413 JCT ibilgailuan, minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **M.J.U.L.**ren izenean matrikulatutako 6413 JCT ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ematea, 2015ko ekitalditik, ibilgailua lehen aldiz eskuratu delako.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departa-mentuari eta interesatuari.

**7.- Impuesto de vehículos. Solicitud de M.J.U.L.**

Con fecha 10 de marzo de 2015, **M.J.U.L.** ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 6413 JCT, por motivo de ininusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ACUERDA**

**PRIMERO.-** Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 6413 JCT, matriculado a nombre de **M.J.U.L.**, con efectos a partir del período impositivo del año 2015, por primera adquisición del vehículo.

**BIGARRENA.-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

### **8.-Etxebizitza hutsak alokatzeko 2014-2015 urteko programa.**

Etxebizitza hutsak alokatzeko 2014-2015 programan, F.B.C. jaunak eskaera egin zuen Beotibar kaleko 4. zenbakia, 3. ezkerrean helbidean kokatutako etxebizitza programan jasotzeko.

Etxebizitza ikuskatzeko bisita egin ondoren, berau egokitzeko zenbait obra egiteko errekerimendua egin zitzaion eskatzaileari.

Behin obrak eginda, etxebizitza alokairuko programan sartzea erabaki zuen Udalak, eta dagokion bizikidetzta-unitateari esleitu zitzaion; hain zuzen, 2015eko urtarrilaren 30ean sinatu zen kontratua.

Horrenbestez, etxebizitza programan jasota, deialdiaren oinarrietan ezarritako diru-laguntzak ordaindu behar dira.

Hori dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

LEHENA.- Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren (EIOZ) eta lizentzia eman izanari dagokion tasaren %50eko diru-laguntza ematea; 82,25 euro, guztira.

BIGARRENA.- Etxebizitza alokairuan utzita izango den bost ekitaldietako bakoitzari dagokion OHZ kuotaren %50eko diru-laguntza ematea.

HIRUGARRENA.- Zaharberritzeko eta egokitzeko obren %25eko diru-laguntza ematea. Lan horien zenbatekoa 6.039,05 eurokoa izan da guztira, eta, beraz, diru-laguntza 1.509,87 eurokoa izango da.

LAUGARRENA.- Etxebizitzaren arrisku

### **8.-Programa de alquiler de viviendas deshabitadas de 2014-2015.**

En el programa de alquiler de viviendas vacías 2014-2015, F.B.C solicitó la incorporación de la vivienda sita en calle Beotibar nº 4-3º Izda.

Efectuada visita de inspección a la vivienda se requirió al solicitante la realización de diversas obras de acondicionamiento de la misma.

Una vez efectuadas las obras se acordó la incorporación de la vivienda al programa de vivienda, adjudicando la misma a la unidad convivencial correspondiente, cuyo contrato se formalizó el 30 de enero de 2015.

Por lo tanto, una vez incorporada definitivamente la vivienda, se ha de proceder a liquidar las ayudas establecidas en las bases de la convocatoria.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

### **ACUERDA**

PRIMERO.- Otorgar una subvención correspondiente al 50% del ICIO y de la tasa por otorgamiento de licencia que asciende a la cuantía de 82,25 euros.

SEGUNDO.- Otorgar una subvención correspondiente al 50% de la cuota del IBI de cada uno de los cinco ejercicios en los cuales la vivienda está cedida en alquiler.

TERCERO.- Subvencionar el 25% de las obras de rehabilitación, cuyo coste es de 6.039,05 euros, por lo que la subvención asciende a la cuantía de 1.509,87 euros.

CUARTO.- Abonar el coste del seguro

anitzeko seguruaren kostua ordaintzea.

multirriesgo de hogar.

BOSGARRENA.- Energia-  
eraginkortasuneko ziurtagiria  
eskuratzeko ordainsarien kostua  
ordaintzea.

QUINTO.- Abonar el coste de los  
honorarios para la obtención de  
certificado de eficiencia energética.

SEIGARRENA.- Ebazpen honen berri  
persona interesdunari eta Sail Esku-  
hartaileari jakinaraztea.

SEXTO.- Comunicar la presente  
resolución a la persona interesada y al  
Departamento de Intervención.

### **9.- 2015eko kiroletako dirulaguntzen oinarriak.**

Gobernu Batzar honek, Kirol batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Kiroletako 2015eko dirulaguntzak jasotzeko oinarriak eta eranskinak onartzea, eta deialdia, besteak beste, Gipuzkoako Aldizkari ofizi alean argitaratzea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kirol departamentuari et Kontuhartzaitzari.

### **10.- 3/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **3/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **55.738,54** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 3/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**